# REGLAMENTO DE

# LICENCIAS FEDERATIVAS

**APROBADO EL 12 DE NOVIEMBRE DE 2021**
**EN ASAMBLEA DE LA**
**FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA –**
**EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T3B2J-BFEZ
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** JON REDONDO LERTXUNDI | 2021/12/28 15:10:49

**Disposición primera.-** El presente Reglamento supone el desarrollo normativo del art. 24.2 del Decreto 16/2006, de 31 de Enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, de tal forma que en cumplimiento de lo dispuesto en el antedicho precepto legal, la Euskal Mendizale Federazioa / Federación Vasca de Montaña, en adelante EMF-FVM, regula en el presente reglamento el régimen documental, deportivo y económico de las licencias federativas.

**Disposición segunda.- De acuerdo con la normativa reguladora,**

- Ley 14/1998 del Deporte de Euskadi, de fecha 11 de Junio,
- Decreto 16/2006 de fecha 31 de Enero, por el que se regula la constitución y el funcionamiento de las Federaciones deportivas del País Vasco,
- Estatutos de la EMF-FVM,

la EMF-FVM promulga el presente reglamento de licencias federativas, a fin de regular y reglamentar la tramitación y la expedición de las licencias federativas en todos sus estamentos.

Cualquier materia sobre la tramitación y expedición de licencias federativas que no esté recogida expresamente en el presente Reglamento, será resuelta de acuerdo a la normativa expuesta.

## Artículo 1.- Naturaleza y efectos de las licencias federativas

**1.1.-** La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular la condición de miembro de la EMF-FVM y le habilita para participar en las competiciones oficiales y de ámbito superior, en conformidad con la reglamentación que en cada caso regulen las mismas.

**1.2.-** La licencia federativa será única y supondrá la doble adscripción de su titular a la EMF-FVM y a la Federación Territorial correspondiente.

**1.3.-** La integración de las personas físicas y jurídicas en la EMF-FVM y en la Federación Territorial correspondiente se producirá mediante la expedición de su licencia federativa.

## Artículo 2.- Procedimiento de tramitación y emisión de las licencias federativas

**2.1.-** Las licencias deportivas serán expedidas en todo caso por la EMF-FVM.

**2.2.-** Las Federaciones Territoriales son las entidades encargadas de tramitar dichas licencias federativas, dando cauce a las solicitudes que reciban de los clubes de su ámbito territorial, para lo cual tendrán las siguientes competencias y facultades:

a) Informar a los clubes de su ámbito territorial sobre los requisitos a cumplir para poder federarse y sobre los efectos que produce ser titular de una licencia federativa.

b) Recoger los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

c) Cobrar el importe total de las licencias y liquidar dicho importe a la EMF-FVM.

Las Federaciones Territoriales crearán remesas, que estarán compuesta por las solicitudes enviadas por los clubes de su ámbito territorial, y serán enviadas a la EMF-FVM por el cauce establecido.

De acuerdo con lo regulado por el artículo 12 del Decreto 16/2006 de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, las Federaciones Territoriales, deberán tramitar las incorporaciones de nuevos Clubes en su ámbito territorial, de forma que deberán verificar y comprobar que el club solicitante cumple con los requisitos exigidos por la ley a la hora de aceptar o denegar su inclusión.

**2.3-** Las solicitudes de altas, ampliaciones y duplicados serán realizadas obligatoriamente por medio de un club al que estará asociado el montañero/montañera, y que se responsabilizará de la veracidad de los datos que aporta a la federación territorial.

- No se admitirán solicitudes realizadas directamente por parte de un/a montañero/a sin la mediación de un club.
- No se facilitarán tarjetas federativas directamente a los/las federados/as sino que corresponderá al club esa función, salvo causas de fuerza mayor, debidamente justificadas por el Presidente del Club o persona responsable, y previo aviso del club a la Federación Territorial debiendo presentar el interesado o la interesada el D.N.I.
- Los clubes no tramitarán altas en la Federación sin la aceptación o solicitud previa por parte de sus socios/as.

**2.4.-** Una remesa de solicitudes de licencia que emita una federación territorial a la EMF-FVM para su emisión, siempre estará compuesta por los siguientes documentos:

- Detalle de las personas a federar con todos los datos necesarios.
- Liquidación económica y justificante de pago. (El concepto del ingreso deberá ser necesariamente el nombre del club para su correcta identificación).

No se tramitará ninguna remesa que no haya sido abonada previamente ni se admitirán pagos en efectivo o mediante talón bancario, salvo que la Federación Territorial indique lo contrario.

**2.5.-** Exceptuando los períodos vacacionales de Semana Santa, el mes de Agosto, y fiestas del calendario laboral (bien del Gobierno Vasco bien de los tres territorios históricos, en el que la EMF-FVM permanecerá cerrada, las licencias se pueden tramitar durante todo el año; es por lo que, todos los clubes afiliados están obligados estatutariamente a realizar las tramitaciones que soliciten sus socios/as sin fijar una fecha límite; se exceptúan los casos en los que un determinado club deba cerrar temporalmente por descanso vacacional o fuerza mayor.

En cualquier caso, el club deberá informar al socio/a sobre la fecha prevista de tramitación de su solicitud de licencia y de que no estará asegurado/a hasta que su solicitud sea tramitada a la Federación Territorial.

**2.6.- Sistema de tramitación manual**

a. Los clubes que decidan realizar el trámite mediante el sistema manual deberán comunicarlo previamente a la Federación Territorial correspondiente.

b. Los impresos de detalle y liquidación de las remesas (altas, ampliaciones y duplicados) deberán ser los facilitados por su Federación Territorial. Deberán ir cumplimentados en letra mayúscula y con el sello del club. El club deberá presentar los impresos de forma duplicada con el fin de que la federación territorial pueda devolver a cada presentante copia sellada de las solicitudes.

c. La Federación Territorial podrá aplicar una tasa por cada alta y ampliación tramitada manualmente como compensación por el trabajo añadido de introducción de datos en el programa informático.

**2.7.- Reconocimiento médico previo.**

De acuerdo con la normativa vigente, para tramitar la licencia federativa será preciso acreditar la obtención del correspondiente reconocimiento médico. No obstante, será en el seno de la Asamblea General de la EMF-FVM donde se determinará las categorías y/o modalidades a las que les será exigible la obtención de dicho reconocimiento como requisito para la obtención de la licencia federativa.

**2.8.- Bajas Federados/federadas.**

Una vez enviada la solicitud/remesa a la Federación Territorial no se admitirá la baja de ninguno de los/las federados/as contenidos en ella ni de ninguna de las coberturas seleccionadas incluso aunque la licencia no estuviera aun en vigor (las tramitadas en noviembre y diciembre para la temporada del año próximo).

**Excepciones**

Por considerar que no procede mantenerlas en vigor se admitirán bajas de federados/as en los siguientes supuestos:

- Que la persona a federar estuviera federada con fecha anterior en otro club.

- Que la persona a federar estuviera federada con fecha anterior en otra federación de montaña gestionada por la misma correduría o mediador.

- Que la persona a federar estuviera federada con otro número de identificación.

- Que la persona a federar hubiera fallecido con anterioridad a la tramitación del alta y el club lo hubiera gestionado por desconocimiento de ese hecho.

- En casos excepcionales no contemplados en los supuestos anteriores, será necesario el acuerdo de la Junta Directiva de EMF-FVM.

**2.9.- Cambio de club**

No se admitirán en ningún caso cambios de club a federados/as cuya licencia esté en vigor o tramitada a la Federación Territorial.

**2.10.- Protección de datos**

En cumplimiento de la ley vigente sobre protección de datos personales, todos los/as federados/as ser informados/as sobre el destino y utilización que la Federación dará a sus datos. En el momento de la solicitud de alta o renovación de la licencia el club entregará al federado/a una copia del "aviso legal" (ver anexo 1) o se lo facilitará para su lectura.

## Artículo 3.- Carácter reglado

La expedición de licencias tendrá carácter reglado, no pudiendo denegar su expedición cuando la o el solicitante reúna las condiciones necesarias para su obtención.

Las licencias deberán tramitarse y expedirse o, en su caso, denegarse en el plazo máximo de un mes, contado a partir del día siguiente a su solicitud debidamente formalizada.

Contra la denegación expresa de la tramitación o expedición de las licencias, que deberá ser motivada, o contra la denegación de la entrega del documento justificativo, podrá interponerse recurso ante la dirección competente en materia de deportes, de la respectiva Diputación Foral o del Gobierno Vasco, en el plazo de 7 días naturales, con arreglo al régimen establecido para el recurso de alzada en la Ley 30/1992 de 26 de Noviembre.

## Artículo 4.- Derechos derivados de la titularidad de una licencia federativa

Las y los integrantes de los estamentos de la EMF-FVM tendrán, como mínimo, los siguientes derechos derivados de la titularidad de la licencia federativa que hayan suscrito:

a) Tener representación y formar parte de los órganos federativos en la forma, condiciones y proporción establecida por la normativa aplicable al respecto.

b) Participar en cuantas actividades organice la EMF/FVM, conforme a las reglas que se establezcan para la regulación de dichas actividades.

c) Recibir cuanta información soliciten sobre la EMF/FVM y sobre la Federación Territorial a la que pertenezcan, conforme a los términos previstos en la normativa vigente.

d) Acudir a los órganos federativos competentes para instar el cumplimiento de las normas federativas.

e) Elevar las consultas y reclamaciones que estimen pertinentes conforme a las normas de la FVM.

f) Disponer del documento justificativo de la licencia federativa.

## Artículo 5.- Obligaciones derivadas de la titularidad de la licencia federativa

Las y los integrantes de los estamentos federativos tendrán, con independencia de lo establecido en los Estatutos de la EMF-FVM, las siguientes obligaciones:

a) Pagar las cuotas que se establezcan.

b) Cumplir todos los acuerdos válidamente adoptados por los órganos federativos en tanto no sean anulados o suspendidos por el órgano competente.

c) Colaborar activamente en la consecución de los fines de la federación.

d) Cumplir fielmente las obligaciones inherentes a los cargos que, en su caso, desempeñen.

e) Asistir a las convocatorias de las selecciones vascas y territoriales para la participación en competiciones deportivas o para la preparación de las mismas.

## Artículo 6.- Duración y comienzo de la vigencia de la licencia federativa

La licencia federativa tendrá validez por una única temporada, que abarcará desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre del año en curso.

La validez de la licencia se inicia, por tanto, desde el momento mismo de su emisión o habilitación, finalizando, en todo caso, el 31 de diciembre del mismo año, sea cual fuere su fecha de expedición o habilitación.

## Artículo 7.- Categorías de las licencias federativas

Las categorías de las licencias federativas son las siguientes (*):

| **CATEGORÍA DEPORTISTAS** |
|---|
| **INFANTIL,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas entre 7 y 13 años (inclusive), con autorización de Diputación Foral.*** |
| **JUVENIL,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas de entre 14 y 17 años (inclusive).*** |
| **MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas de entre 18 y 64 años (inclusive).*** |

| |
|---|
| **BENEFICIARIO MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan con el requisito de la categoría MAYOR y que además convivan con otro federado/a en el mismo domicilio.*** |
| **MAYOR DE 65 AÑOS,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas mayores de 65 años.*** |
| **BENEFICIARIO MAYOR DE 65 AÑOS, que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan los requisitos de la categoría MAYOR DE 65 AÑOS, y que demás convivan con otro/a federado/a en el mismo domicilio.** |

| **CATEGORÍA TÉCNICOS-TECNICAS** |
|---|
| **MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas de entre 18 y 64 años (inclusive) que opten por formar parte del cuerpo técnico, con arreglo a los requisitos exigidos por la EMF-FVM.*** |
| **BENEFICIARIO MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan con el requisito de la categoría MAYOR y que además convivan con otro federado/a en el mismo domicilio.*** |
| **MAYOR DE 65 AÑOS,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas mayores de 65 años que opten por formar parte del cuerpo técnico, con arreglo a los requisitos exigidos por la EMF-FVM.*** |
| **BENEFICIARIO MAYOR DE 65 AÑOS, que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan los requisitos de la categoría MAYOR DE 65 AÑOS, y que demás convivan con otro/a federado/a en el mismo domicilio.** |

| **CATEGORÍA JUECES Y JUEZAS** |
|---|
| **MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas de entre 18 y 64 años (inclusive) que opten por formar parte del cuerpo de jueces y árbitros, con arreglo a los requisitos exigidos por la EMF-FVM.*** |
| **BENEFICIARIO MAYOR,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan con el requisito de la categoría MAYOR y que además convivan con otro federado/a en el mismo domicilio.*** |
| **MAYOR DE 65 AÑOS,** ***que formarán parte de ella los federados y federadas mayores de 65 años que opten por formar parte del cuerpo de jueces y juezas, con arreglo a los requisitos exigidos por la EMF-FVM.*** |
| **BENEFICIARIO MAYOR DE 65 AÑOS, que formarán parte de ella los federados y federadas que cumplan los requisitos de la categoría MAYOR DE 65 AÑOS, y que demás convivan con otro/a federado/a en el mismo domicilio.** |

**(*) A efectos de la clasificación por categorías se aplicarán los siguientes criterios:**

**- INFANTIL: nacidos entre el 1 de Enero del año en el que cumplan 7 años y el 31 de Diciembre del año en el que cumplan 13 años**

**- JUVENIL: nacidos entre el 1 de Enero del año en el que cumplan 14 años y el 31 de Diciembre del año en el que cumplan 17 años**

**- MAYOR: nacidos entre el 1 de Enero del año en el que cumplan 18 años y el 31 de Diciembre del año en el que cumplan 64 años**

**- MAYOR de 65 AÑOS: nacidos a partir del 1 de Enero del año en el que cumplan 65 años y el 31 de Diciembre del año en el que cumplan 64 años**

**Queda a salvo que algunas necesiten de autorización administrativa por las correspondientes Diputaciones Forales (departamentos responsables de deporte escolar), para su expedición cuando el deportista se encuentre en la franja de edad escolar, según la normativa vigente.**

## Artículo 8.- Cuotas de las licencias federativas

La Asamblea de la FVM-EMF, con carácter anual, deberá determinar las cuotas que corresponderán ser abonadas por la tramitación y emisión de las licencias federativas.

Las federaciones vasca y territorial de montaña repartirán el importe neto de cada licencia en los términos aprobados por la Asamblea General de la EMF-FVM. Dicho importe neto será el resultado de minorar al importe bruto los importes establecidos en las letras a) y d) del apartado 8.1 del presente artículo. En ningún caso, la cantidad a percibir por las federaciones territoriales o por la federación vasca podrá ser inferior al 35% del importe neto antes citado.

La EMF-FVM y las federaciones territoriales de montaña podrán percibir de sus federados/as una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de los servicios y actividades de dichas federaciones.

**8.1.- DESGLOSE DE LA CUOTA.**

La cuota correspondiente a la licencia estará desglosada en los siguientes conceptos:

a) Cuota de los seguros obligatorios de asistencia sanitaria que cubra los riesgos para la salud de la o el titular, de responsabilidad civil y de indemnizaciones por fallecimiento y por pérdidas anatómicas y funcionales.

b) Cuota destinada a financiar la estructura y funcionamiento de la federación deportiva vasca.

c) Cuota destinada a financiar la estructura y funcionamiento de la federación deportiva territorial.

d) Cuota, en su caso, para participar en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

**8.2.- CUOTA SEGUROS Y OTRAS COBERTURAS.**

En este apartado, el/la montañero/a tendrá a su elección las siguientes coberturas geográficas:

A) COBERTURA EN TERRITORIO ESTATAL = COBERTURA BASE

B) COBERTURA EN TERRITORIAL ESTATAL + PIRINEOS
(PIRINEO FRANCES + ANDORRA + PORTUGAL + ATLAS)

C) COBERTURA EN TERRITORIO ESTATAL + MUNDO

Además, estarán a disposición de los/as federados/as las siguientes opciones para ampliar cobertura, cuyas cuotas estarán concretadas en la publicación de las cuotas de la temporada a iniciar:

1. **Expedición**
2. **Esquí alpino**
3. **Snow**
4. **BTT**
5. **Licencia FEDME**
6. **Pyrenaica, opción solo válida para las licencias infantiles y juveniles (para mayores es obligatoria)**

**NOTA:** Las personas que practican esquí de fondo en estaciones balizadas o que utilizan remontes mecánicos deben tener la opción de esquí alpino seleccionada.

**8.3.- AMPLIACIONES Y DUPLICADOS**

**AMPLIACIONES:** Por la tramitación de las ampliaciones (ampliación FEDME, ampliación seguro y/u Opciones) se cobrará la cantidad que se establezca en la publicación de las cuotas anuales.

**DUPLICADOS:** Por la reposición de la tarjeta federativa se cobrará la cantidad que se establezca en la publicación de las cuotas anuales.

**8.4.- La EMF-FVM será la única competente para la contratación de seguros colectivos que garanticen las coberturas de riesgos obligatorias por la legislación vigente.**

La contratación de dichos seguros colectivos tendrá carácter anual y prestará cobertura para toda la temporada deportiva.

Cada licencia federativa llevará aparejada uno o varios seguros, que como mínimo, garantizarán las coberturas establecidas en el Real Decreto 849/1993 de 4 de junio, por el que se determinan las prestaciones mínimas del seguro obligatorio deportivo.

Las coberturas de los seguros obligatorios contratados por la EMF-FVM, conforme a los apartados anteriores serán iguales para todas las licencias federativas de personas físicas, sin distinción de la federación territorial a la que en cada caso correspondan.

La FVM-EMF, pondrá a disposición de todos los federados, mediante publicación en su web oficial, la relación de las pólizas que se hubiesen concertado y copia de las condiciones de las mismas en las que se concreten las coberturas y prestaciones que resulten garantizadas.

Esta publicación se llevará a cabo dentro del primer trimestre del año en curso.

## Artículo 9.- Formato y contenido de las licencias federativas

**9.1.-** El formato de la licencia federativa será bilingüe, empleándose por igual las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, español y euskera.

**9.2.-** El contenido del documento de la licencia federativa estará compuesto por los siguientes conceptos:

1. Identificación de la EMF-FVM como federación emisora.
2. Duración anual de la licencia.
3. Datos personales completos de la persona física titular de la licencia.
4. Datos del club al que pertenece la persona física titular de la licencia.
5. Referencia de la categoría y estamento
6. Firma de la o el Presidente de la EMF-FVM o de la persona en quien delegue expresamente.
7. Sello de la EMF-FVM

En el documento de la licencia se consignarán también claramente los conceptos económicos que componen la cuota, antes mencionados.

## Artículo 10.- Compatibilidad de licencias

Una misma persona que sea titular de una licencia emitida por la EMF-FVM podrá ostentar licencias federativas correspondientes a federaciones de diferentes modalidades deportivas.

En ningún caso se admitirá que una misma persona ostente licencias en una misma modalidad, o disciplina deportiva, y estamento por más de un Territorio Histórico.

**Disposición final Primera.-** El presente Reglamento deroga cualquier otra disposición anterior y contraria a lo dispuesto en el mismo.

**Disposición final Segunda.-** La normativa recogida en el presente Reglamento entrará en vigor una vez resulte aprobada por la asamblea general de la EMF-FVM, aprobada por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y conste inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz a 12 de noviembre de 2021.

**Secretaria**



**AINARA APARICIO ARRONATEGUI**

**Presidente**



**ZIGOR EGUIA SUANCES**

# ANEXO 1.

# AVISO LEGAL SOBRE LA PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

## INFORMACIÓN DIRIGIDA AL FEDERADO

- (Una copia de esta información será entregada a cada montañero/a)

De acuerdo con lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999 del 13 de Diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y su normativa de desarrollo hasta el Reglamento (UE) 679/2016 del 27 de Abril, se le informa que los datos registrados mediante formulario o soporte informático sirven exclusivamente a la finalidad de prestarle los servicios relacionados con la licencia federativa y que serán conservados en un fichero informático propiedad de la **Euskal Mendizale Federazioa - Federación Vasca de Montaña** que se halla inscrito en la Agencia de Protección de Datos. Asimismo se informa que en cumplimiento con lo establecido con la normativa federativa, las Federaciones Territoriales, junto con los clubes, sólo tramitarán la documentación necesaria para la emisión de la licencia por parte de la EMF-FVM, dándole el tratamiento legal debido y con uso exclusivo del destino para el que se facilitó.

Los titulares de los datos podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, exclusión, oposición y cancelación, dirigiendo su solicitud a la EMF-FVM, sita en el Pº de Errotaburu, 1 - 3º, 20018 Donostia/San Sebastián. En dicha solicitud deberá constar el nombre y apellidos del interesado, su domicilio a efectos de notificaciones, fotocopia del documento nacional de identidad o pasaporte. En caso de representación, deberá acreditarse la misma mediante documento fehaciente. Los datos solicitados son considerados obligatorios con respecto a la finalidad especificada. La omisión de oponerse a este tratamiento de sus datos implicará un consentimiento tácito al mismo, así como a la cesión de los mismos a las mencionadas entidades.

euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

# FEDERAZIOAREN LIZENTZIEN ARAUDIA

## 2021EKO AZAROAREN 12AN ONARTUA, EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN BATZARREAN

**Lehen xedapena.-** Honako araudi honek urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioenak, 24.2 artikuluan jasotzen duenaren arau-garapena adierazten du, eta, beraz, adierazitako lege-agindu hori betetzeko xedez, Euskal Mendizale Federazioak (aurrerantzean, EMF) federazio-lizentziei dagokien agiri-, kirol- eta ekonomia-araubidea zehaztu du araudi honetan.

**Bigarren xedapena.- Honako araudi honekin bat etorrita:**

- 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko kirol-federazioen eraketa eta funtzionamendua arautzen duena.
- EMFren estatutuak.

Federazio-lizentzien eta aisialdi-txartelen araudi hau promulgatu du EMFk, estamentu guztietan federazio-lizentziak eta aisialdi-txartelak izapidetzea eta jaulkitzea arautzeko.

Bi atal ditu honako araudi honek:
- Lehenengo atalean, oro har, 12 urtetik gorako kirolari guztiei dagozkien federazio-lizentziak hartuko dira aintzat.
- Bigarrena 12 urte artekoei dagokie, eta horientzat, aisialdi-txartela arautu da; txartel horrek ez du bide emango inongo lehiaketatan parte hartzeko.

Berariaz honako araudi honetan jasotzen ez diren federazio-lizentzien eta aisialdi-txartelen inguruko gai oro adierazitako araudiaren arabera ebatziko da.

## 1. artikulua.- Federazio-lizentzien izaera eta ondorioak

**1.1.-** Federazio-lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, eta haren titularrari EMFko kide izaera ematen dio; lehiaketa ofizialetan eta hortik gorako eremukoetan parte hartzeko gaitzen du, betiere, lehiaketa bakoitza zuzentzen duen araudiarekin bat etorrita.

**1.2.-** Federazio-lizentzia bakarra da, eta, horren bidez, titularra EMFri eta dagokion lurralde-federazioari atxikita egongo da.

**1.3.-** Pertsona fisikoak eta juridikoak EMFko kide eta dagokion lurralde-federazioko kide egiteko bidea federazio-lizentzia ematea izango da.

## 2. artikulua.- Federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedura

**2.1.-** Kirol-lizentziak EMFk emango ditu, kasu guztietan.

**2.2.-** Lurralde-federazioak dira federazio-lizentziak izapidetzeko ardura duten erakundeak, eta haiek bideratuko dituzte beren lurralde-eremuko klubetatik jasotzen dituzten eskariak; horretarako, honako gaitasun eta eskumen hauek izango dituzte:

a) Beren lurralde-eremuko klubei argibideak ematea federatzeko bete beharreko eskakizunez eta federazio-lizentzia baten titularra izateak dituen eraginez.

b) Federazioko kide egiteko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasotzea.

c) Lizentzien zenbateko osoa kobratzea, eta zenbateko hori likidatzea EMFri.

Lurralde-federazioek sortak osatuko dituzte, beren lurralde-eremuko klubek igorritako eskariekin; eta EMFri igorriko zaizkio horiek, adostutako bidea erabiliz horretarako.

Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioenak, 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, lurralde-federazioek klub berrien sarbidea izapidetu beharko dute, eta, horretarako, eskaria egiten duen klubak halakoen sarrera onartzeko edo ukatzeko legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen aztertu eta egiaztatu beharko dute.

**2.3-** Izena emateko, hedatzeko edo kopiak egiteko eskariak, nahitaez, klub baten bidez egin behar dira, mendizalea kide duen klubaren bidez; eta hura izango da lurralde-federazioari emandako datuen egiazkotasunaren arduraduna.

- Ez dira onartuko zuzenean klub baten bitartekotzarik gabe mendizale batek egin ditzakeen eskariak.
- Ez zaizkie federatuei zuzenean helaraziko federazio-txartelak; aitzitik, klubari dagokio funtzio hori, ezinbesteko kasuetan ez bada, eta, halakoetan, klubaren lehendakariak edo gai horren ardura duen pertsonak behar bezala justifikatuko beharko du egoera, eta aurrez adierazi beharko dio klubak lurralde-federazioari; interesdunak NANa aurkeztu beharko du gainera.
- Klubek ez dituzte federazioan altak izapidetuko, aurrez bazkideek onartu ez badute edo eskaria egin ez badute.

**2.4.-** Lurralde-federazio batek EMFra lizentzia-eskarien sorta bat bidaltzen duenean, honako agiri hauek bidaliko ditu:

- Federatuko den pertsonari buruzko xehetasunak, beharrezkoak diren datu guztiekin.
- Likidazio ekonomikoa eta ordainagiria. (Diru-sarrerari dagokion kontzeptuan, klubaren izenak agertu behar du nahitaez, zuzen identifikatu ahal izateko).

Ez da aurrez ordaindu ez den sortarik izapidetuko inoiz; ez da onartuko, ezta ere, ordainketa eskudirutan edo banku-txeke bidez egitea, lurralde-federazioak besterik adierazten duenean izan ezik.

**2.5.-** Aste Santuko oporrak, abuztua eta lan-egutegian (Eusko Jaurlaritzarena nahiz hiru lurralde historikoena) adierazitako jaiegunetan izan ezik –denboraldi eta egun horietan EMF itxita egongo da–, urte guztian zehar izapidetu daitezke lizentziak; horregatik, kide diren klub guztiak behartuta daude, estatutuen bidez, beren bazkideek egiten dizkieten eskari guztiak izapidetzera, mugaegunik jarri gabe; salbuespen dira klub batek oporraldia dela-eta edo ezinbesteko arrazoiren batengatik itxita egingo dituen denboraldien kasuak.

Dena den, bazkideari argibideak eman behar dizkio klubak bere lizentzia-eskaria izapidetuko den datari buruz, eta eskaria lurralde-federaziora bideratu arte ez duela asegurua izango jakinaraziko dio.

**2.6.- Eskuz izapidetzeko sistema**

a. Izapideak eskuzko sistemaren bidez egitea erabakitzen duten klubek halaxe jakinarazi beharko diote aurrez dagokien lurralde-federazioari.

b. Xehetasunei eta sorten likidazioari buruzko inprimakiak (altak, hedapenak eta kopiak) lurralde-federazioek emandakoak izan behar dute. Letra larriz bete behar dira inprimaki horiek, eta klubaren zigilua izan behar dute. Klubak bi aletan aurkeztu behar ditu inprimakiak, lurralde-federazioak eskariaren kopia zigiluz jota itzul diezaion eskaria aurkeztu duenari.

c. Eskuz izapidetutako altagatik edo hedapenagatik, tasa bat aplika dezake lurralde-federazioak, programa informatikoan datuak sartzeak adierazten duen lanaren konpentsazio modura.

**2.7.- Aldez aurreko osasun azterketa.**

Indarrean den araudiarekin bat etorrita, federazio-lizentzia izapidetzeko, beharrezkoa izango da osasun-azterketaren agiria aurkeztea. Dena den, EMFren Batzar Orokorraren barnean erabakiko da osasun-azterketa hori zer kategoriatan edota modalitatetan eskatuko den, federazio-lizentzia lortzeko baldintza gisa.

**2.8.- Federatuen bajak.**

Eskaria/sorta lurralde-federaziora bidali ondoren, ez da onartuko horietan adierazitako federatuetako inoren bajarik, ez eta aukeratutako estaldurei dagokienik ere, lizentzia oraindik indarrean ez dagoenean ere ez (hurrengo urterako denboraldirako azaroan eta abenduan izapidetutakoak).

**Salbuespenak**

Indarrean mantentzea egoki ez dela uste denez, onartu egingo da federatuen baja kasu hauetan:

- Federatu beharreko pertsona aurrez beste klub batean federatuta egotea.

- Federatu beharreko pertsona aurrez beste mendi-federazio batean federatuta egotea, artekaritza edo bitartekari berak kudeatuta.

- Federatu beharreko pertsona federatuta egotea, beste identifikazio-zenbaki batekin.

- Federatu beharreko pertsona alta izapidetu aurretik hiltzea eta klubak eskaria kudeatu izana, gertakari horren jakitun ez zelako.

- Aurreko kasuetan jasotzen ez diren salbuespenezko egoeretan, behar-beharrezkoa izango da EMFren Zuzendaritza Batzordearen akordioa.

**2.9.- Klub-aldaketa**

Ez da inola ere onartuko federatuek kluba aldatzea horien lizentzia indarrean dagoenean edota lurralde-federazioan izapidetuta dagoenean.

**2.10.- Datuen babesa**

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean den legea betetzeko, federatu guztiei jakinarazi behar zaie federazioak beren datuei zer xede emango dien eta zertarako erabiliko diren. Batez ere alta eskatzeko unean edota lizentzia berritzerakoan, klubak “lege oharraren” kopia (ikusi 1. eranskina) igorriko dio federatuari, edota irakurtzeko emango zaio.

## 3. artikulua.- Izaera arautua

Lizentziak emateak izaera arautua izango du, eta, beraz, ezin izango da lizentzia ematea ukatu, eskatzaileak lizentzia eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituenean.

Lizentziak gehienez ere hilabeteko epean izapidetu eta emango dira edota, hala dagokionean, ukatuko dira, eskaria behar bezala formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizentziak izapidetzea edo ematea espresuki ukatzen dela jakinarazten denean (arrazoiak emanez ukatu beharko da), edota lizentziaren egiaztagiria eskuratzea ukatzen denean, errekurtsoa jarri ahal izango da, dagokion foru-aldundian edo Eusko Jaurlaritzan, kiroletan eskumenak dituen zuzendaritzaren aurrean, zazpi egun naturaleko epean. Horretarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsoetarako ezarritako erregimenari jarraituko zaio.

## 4. artikulua.- Federazio-lizentziaren titulartasunetik eratorritako eskubideak

EMFko estamentuetako kideek honako eskubide hauek izango dituzte gutxienez, izapidetutako federazio-lizentziaren titulartasunetik eratorrita:

a) Federazioko organoetan ordezkaritza izatea eta haietako kide izatea, aplikagarria den araudiaren arabera ezarritako eran, baldintzetan eta proportzioan.

b) Federazioak antolaturiko jarduera guztietan parte hartzea, jarduera horiek arautzeko ezarritako arauen arabera.

c) EMFri eta kide diren lurralde-federazioari buruz eskatutako informazioa jasotzea, indarrean den araudian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

d) Federazioaren organo eskumendunetara jotzea, federazioaren arauak bete daitezela eskatzeko.

e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, EMFren arauekin bat etorrita.

f) Federazio-lizentzia egiaztatzen duen agiria izatea.

## 5. artikulua.- Federazio-lizentziaren titulartasunetik eratorritako betebeharrak

Federazioren estamentuetako kideek honako betebehar hauek izango dituzte, EMFren estatutuetan xedatutako betebeharrez gain:

a) Ezarritako kuotak ordaintzea.

b) Federazioaren organoetan onartutako erabakiak betetzea, erabaki horiek horretarako eskumena duen organoak baliogabetzen edo bertan behera uzten ez baditu.

c) Federazioaren helburuak lortzen era aktiboan parte hartzea.

d) Hala dagokionean, dituzten karguei atxikitako betebeharrak leialki betetzea.

e) Euskadiko selekzioek eta lurraldeko selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

## 6. artikulua.- Federazio-lizentziaren iraupena eta indarraldiaren hasiera

Federazio-lizentziak denboraldi bakar baterako balio izango du, indarreko urtearen barnean, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Hortaz, lizentziaren baliozkotasuna ematen edo gaitzen den unean hasiko da eta, kasu guztietan, urte horretako abenduaren 31n amatuko da, lizentzia eman edo gaitu zen eguna edozein izanik ere.

## 7. artikulua.- Federazio-lizentzien kategoriak

Hauek dira federazio-lizentzien kategoriak (*):

| KIROLARIEN KATEGORIA |
|---|
| **HAUR KATEGORIA:** ***7 eta 13 urteko (biak barne) federatuek osatzen dute kategoria hau, Foru Aldundiaren baimenarekin.*** |
| **GAZTE KATEGORIA:** ***14 urtetik 17ra (biak barne) bitarteko federatuek osatzen dute kategoria hau.*** |
| **HELDUEN KATEGORIA:** ***18 urtetik 64ra (biak barne) bitarteko federatuek osatzen dute kategoria hau.*** |
| **HELDU ONURADUNA:** ***HELDU kategoriako kide izateko baldintzak betetzeaz gain etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.*** |

| |
|---|
| 65 URTETIK GORAKOAK: *65 urtetik gorako federatuek osatzen dute kategoria hau.* |
| 65 URTETIK GORAKO HELDU ONURADUNA: *65 URTETIK GORAKO kategoriako kide izateko baldintzak betetzeaz gain, etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.* |

| TEKNIKARIEN KATEGORIA |
|---|
| HELDUA: *EMFk eskatzen dituen baldintzak betez kidego teknikoan parte hartzen duten 18 urtetik 64 urtera (biak barne) bitarteko federatuek osatzen dute kategoria hau.* |
| HELDU ONURADUNA: *HELDU kategoriako kide izateko eskariak betetzeaz gain etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.* |
| 65 URTETIK GORAKOAK: *EMFk eskatzen dituen baldintzak betez kidego teknikoan parte hartzen duten 65 urtetik GORAKO federatuek osatzen dute kategoria hau.* |
| 65 URTETIK GORAKO HELDU ONURADUNA: *65 URTETIK GORAKO kategoriako kide izateko baldintzak betetzeaz gain, etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.* |

| EPAILEEN KATEGORIA |
|---|
| HELDUA: *EMFk eskatzen dituen baldintzak betez epaileen kidegoan parte hartzen duten 18 urtetik 64 urtera (biak barne) bitarteko federatuek osatzen dute kategoria hau.* |
| HELDU ONURADUNA: *HELDU kategoriako kide izateko eskariak betetzeaz gain etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.* |
| 65 URTETIK GORAKOAK*: EMFk eskatzen dituen baldintzak betez epaileen kidegoan parte hartzen duten 65 urtetik GORAKO federatuek osatzen dute kategoria hau.* |
| 65 URTETIK GORAKO HELDU ONURADUNA: *65 URTETIK GORAKO kategoriako kide izateko baldintzak betetzeaz gain, etxe berean beste federatu batekin bizi direnek osatzen dute kategoria hau.* |

**(*) Kategorien araberako sailkapenerako, honako irizpide hauek aplikatuko dira:**
**- HAUR KATEGORIA: 7 urte betetzen dituzten urteko urtarrilaren 1etik 13 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ra artekoak.**
**- GAZTE KATEGORIA: 14 urte betetzen dituzten urteko urtarrilaren 1etik 17 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ra artekoak.**
**- HELDU KATEGORIA: 18 urte betetzen dituzten urteko urtarrilaren 1etik 64 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ra artekoak.**
**- 65 URTETIK GORAKO HELDUEN KATEGORIA: 65 urte betetzen dituzten urteko urtarrilaren 1etik eta 64 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31tik aurrerakoak.**

**Batzuek dagozkien foru aldundien (eskola-kirolaren arduradunak diren sailak) administrazio-baimena beharko dute izapidetu ahal izateko, kirolariak eskola-adina duenean, indarrean dagoen araudiaren arabera.**

## 8. artikulua.- Federazio-lizentzien kuotak

EMFren Batzarrak, urtero, federazio-lizentziak izapidetu eta emateko ordaindu beharko diren kuotak zehaztu beharko ditu.

Euskadiko eta lurraldeetako mendi-federazioek lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia EMFren Batzar Orokorrak onartutako moduan banatuko dute. Zenbateko garbi hori zenbateko gordinari honako artikulu honetako 8.1 puntuko a) eta d) letretan zehaztutako zenbatekoak kenduta aterako dena izango da. Lurralde-federazioek edo euskal federazioak jasoko duten zenbatekoa ez da izango inoiz adierazitako zenbateko garbi horren % 35 baino txikiagoa.

EMFk eta mendiko lurralde-federazioek beren federatuengandik kuota boluntario gehigarri bat jaso dezakete, federazio horien zerbitzu eta jarduerak finantzatzeko.

**8.1.- KUOTAREN BANAKATZEA.**

Lizentziari dagokion kuota ondoren adierazten den eran banakatuko da:

a) Nahitaezko aseguruen kuota: titularraren osasun-arriskuak estaltzen dituen osasun-laguntzako aseguruaren, erantzukizun zibileko aseguruaren eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalagatiko kalte-ordainen aseguruaren kuota, hain zuzen.

b) Euskadiko kirol-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

c) Lurraldeko kirol-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

d) Federazioen eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.

**8.2.- ASEGURUEN ETA BESTE ESTALDURA BATZUEN KUOTA.**

Atal honetan, honako estaldura geografiko hauek edukiko ditu aukeran mendizaleak:

A) ESTATUKO LURRALDEAREN ESTALDURA = OINARRIZKO ESTALDURA

B) ESTATUKO LURRALDEAREN + PIRINIOEN ESTALDURA
(FRANTZIAR PIRINIOAK + ANDORRA + PORTUGAL + ATLASA)

C) ESTATUKO LURRALDEAREN + MUNDUAREN ESTALDURA

Horrez gain, federatuek honako aukera hauek dituzte beren estaldura hedatzeko, eta horiei dagozkien kuotak hasiko den denboraldiko kuoten argitalpenean zehaztuko dira:

1. **Espedizioa**
2. **Eski alpetarra**
3. **Snowa**
4. **BTT**
5. **FEDME lizentzia**
6. **Pyrenaica; haur eta gazteei dagozkien lizentzietan da soilik baliagarria aukera hau (helduentzat ezinbestekoa da)**

**OHARRA:** balizatutako estazioetan iraupen-eskia egiten duten pertsonek edo igogailu mekanikoak erabiltzen dituztenek alpetar eskiari dagokion aukera hautatua izan behar dute.

**8.3.- HEDADURAK ETA KOPIAK**

**HEDADURAK:** hedadurak izapidetzeagatik (FEDME hedadura, aseguru-hedadura edota beste aukera batzuk), urteko kuoten argitalpenean zehaztutako kopurua kobratuko da.

**KOPIAK:** federazio-txartela berriz ematen denean, urteko kuoten argitalpenean adierazitako zenbatekoa kobratuko da.

**8.4.- EMF izango da aseguru kolektiboak kontratatzeko eskumena duen bakarra, indarreko legediaren arabera beharrezkoak diren arrisku-estaldurak bermatzeko.**

Aseguru kolektibo horien kontratazioak urteko izaera izango du, eta kirol-denboraldi osorako estaldura eskainiko du.

Federazio-lizentzia bakoitzak aseguru bat edo batzuk izango ditu atxikita, eta, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuak, kirol-arloko nahitaezko aseguruaren gutxieneko prestazioak zehazten dituenak, xedatutako estaldurak bermatuko ditu.

Aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, EMFk kontratatutako nahitaezko aseguruen estaldurak berdinak izango dira pertsona fisikoen federazio-lizentzia guztietarako, kasu bakoitzean dagokion lurralde-federazioa bereizi gabe.

Itundutako poliza guztien zerrenda jarriko du federatuen esku EMFk, bere wegunean argitaratuz, eta horien baldintzen kopia ere emango du, non bermatutako estaldurak eta prestazioak zehaztuko diren.
Indarrean den urteko lehen hiruhilekoan argitaratuko da berori.

## 9. artikulua.- Federazio-lizentzien formatua eta edukia

**9.1.-** Federazio-lizentziaren formatua elebiduna izango da, eta berdintasunez erabiliko dira Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, espainiera eta euskara.

**9.2.-** Federazio-lizentziaren dokumentuaren edukia honako kontzeptu hauek osatuko dute:

1. EMFren identifikazioa, lizentzia ematen duen federazioa den aldetik.
2. Lizentziaren iraupena, urtebetekoa.
3. Lizentziaren titularra den pertsona fisikoaren datu pertsonal guztiak.
4. Lizentziaren titularra den pertsona fisikoa kide duen klubaren datuak.
5. Kategoriaren eta estamentuaren erreferentzia.
6. EMFren lehendakariaren edo hark eskuordetutako pertsonaren sinadura.
7. EMFren zigilua.

Lizentziaren dokumentuan, argi jasoko dira, halaber, kuotaren osagai diren kontzeptu ekonomikoak.

## 10. artikulua- Lizentzien bateragarritasuna

EMFk emandako lizentzia baten titularra den pertsonak hainbat kirol-modalitateko federazioen lizentziak ere izan ditzakete.

Ez da inola ere onartuko pertsona berak kirol-modalitate bereko, kirol-diziplina bereko eta estamentu bereko lizentzia izatea lurralde historiko batean baino gehiagotan.

**Azken xedapena, lehena.-** Honako araudi honek indargabe utziko du aurretiazkoa eta hemen xedatutakoaren kontrakoa den xedapen oro.

**Azken xedapena, bigarrena.-** Azken xedapena, bigarrena.- Honako agiri honetan biltzen den araudia EMFren Batzar Orokorrak onartzen duenean, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak onartzen duenean eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen denean sartuko da indarrean.

Gasteizen, 2021eko azaroaren 12a

**Idazkaria**



**AINARA APARICIO ARRONATEGUI**

**Presidentea**



**ZIGOR EGUIA SUANCES**

## 1. ERANSKINA

## IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESARI BURUZKO LEGE-OHARRA

### FEDERATUARI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA

- (Mendizale bakoitzari emango zaio informazio honen kopia bat)

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, eta hura garatzeko 679/2016 (EB) Erregelamenduak, apirilaren 27koak, xedatzen dutenarekin bat etorrita, jakinarazi nahi dizugu inprimaki edo euskarri informatiko bidez erregistratutako datuak soilik federazio-lizentziarekin lotutako zerbitzuak emateko xedez erabiliko direla, eta **Euskal Mendizale Federazioa** jabe duen fitxategi informatiko batean gordeko direla; Datuak Babesteko Agentzian inskribatuta dago fitxategi hori. Horrez gain, jakinarazi nahi dizugu, federazioaren araudian xedatutakoa betez, EMFk lizentzia emateko beharrezkoa den dokumentazioa soilik izapidetuko dutela Lurralde Federazioek, klubekin batera; legez dagokien tratamendua emango diete horiei, eta ematerakoan zuten xederako erabiliko dira soilik.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kanporatzeko, aurre egiteko eta ezeztatzeko eskubideak balia ditzakete, eskaera EMFra bidaliz: Errotaburu pasealekua 1, 9.a, 20018 Donostia. Eskari horretan, interesdunaren izena eta abizenak jasoko dira, bai eta jakinarazpenetarako helbidea, nortasun agiri nazionalaren fotokopia edota pasaportearena ere. Ordezkari baten bidez egiten bada, horren fede ematen duen dokumentu baten bidez egiaztatu beharko da. Zehaztutako xederako beharrezkotzat jotzen dira eskatutako datuak. Datuen tratamenduaren aurka egiten ez bada, ulertuko da isilbidez baimena ematen dela datu horien tratamendurako, bai eta aipatutako erakunde horiei lagatzeko ere.